

PROBA ESPEZIFIKOA

2021eko PROBA

BIOLOGIA

PROBA

ERANTZUNAK





Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete

Azterketak bi atal ditu:

- Lehen atalean, bi gaietako bat garatu behar da: A edo B.
- Bigarren atalean, hiru galderei erantzun behar zaie.

Aintzat hartuko dira:

- Hizkuntza zientifikoaren erabilera.
- Ideiak adierazteko ordena eta heldutasuna.
- Azterketaren aurkezpen egokia.

AUKERATU GAI BAT: A EDO B

(4 puntu)

A. Txertoak: zer diren eta nola lortzen diren. Nola eragiten duten. Txerto motak.

B. Interfasea eta mitosia. Zer da interfasea, eta zer gertatzen da hartan? Zer da mitosia? Zer fase ditu, eta zer gertatzen da haietako bakoitzean? Zein dira alde nagusiak mitosiaren eta meiosiaren artean? (balorazio positiboa emango zaio gaiari egokitutako eskemak erabiltzeari)

ERANTZUN GALDERA HAUEI:

(6 puntu)

1.- Zer dira birusak? Azaldu ezazu nola garatzen den birus baten bizi-zikloa. (2 puntu)

2.- Azaldu giza arnasketa: arnasbideak, gasak finkatzea, garraiatzea eta kanporatzea. (2 puntu)

3.- Definitu kontzeptu hauek: (2 puntu)

- a) Genea; aleloa.
- b) Genotipoa; fenotipoa.
- c) Katabolismoa; anabolismoa.
- d) Bioelementua; biomolekula



**EBAZPENA BIOLOGIA
(2021)**

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

GAIK	Puntuak	ERANTZUNAK
A. Txertoak: zer diren eta nola lortzen diren. Nola eragiten duten. Txerto motak.	4	- Definizioa (0,5 puntu). - Nola lortzen diren (1 puntu). - Txertoen eta immunizazioaren arteko erlazioa (1 puntu). - Txertoen patogenizitaterik eza (0,5 puntu). - Txerto motak (1 puntu).
B. Interfasea eta mitosia. Zer da interfasea, eta zer gertatzen da hartan? Zer da mitosia? Zer fase ditu, eta zer gertatzen da haietako bakoitzean? Zein dira alde nagusiak mitosiaren eta meiosiaren artean? (balorazio positiboa emango zaio gaiari egokitutako eskemak erabiltzeari)	4	- Interfasea definitzea. Hartan kromatinaren DNA bikoizten dela adieraztea (0,5 puntu). - Mitosia bere testuinguruan azaltzea, eta adieraztea zelula eukarioto somatikoetako kariozinesi mota bat dela (0,5 puntu). - Mitosi-prozesuaren garapena adieraztea, lau faseetako bakoitzean zer gertatzen den azalduta (2 puntu). - Mitosiaren eta meiosiaren arteko aldeak (1 puntu).
GALDERAK	Puntuak	ERANTZUNAK
1.- Zer dira birusak? Azaldu ezazu nola garatzen den birus baten bizi-zikloa.	2	- Birusak zelula barneko parasito hertsia gisa identifikatzea (0,5 puntu). - Ziklo litikoa (0,75 puntu). - Ziklo lisogenikoa (0,75 puntu).
2.- Azaldu giza arnasketa: arnasbideak, gasak finkatzea, garraiatzea eta kanporatzea.	2	- Arnasbideak (0,5 puntu). - Oxigenoa finkatzea (0,5 puntu). - Oxigenoa garraiatzea (0,5 puntu). - CO ₂ -a kanporatzea (0,5 puntu).
3.- Definitu kontzeptu hauek: a) Genea; aleloa (0,5 puntu) b) Genotipoa; fenotipoa (0,5 puntu) c) Katabolismoa; anabolismoa (0,5 puntu) d) Bioelementua; biomolekula (0,5 puntu)	2	Definitu kontzeptu hauek: a) Genea; aleloa (0,5 puntu) b) Genotipoa; fenotipoa (0,5 puntu) c) Katabolismoa; anabolismoa (0,5 puntu) d) Bioelementua; biomolekula (0,5 puntu)



**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
KORRESPONDENTZIA**

Galdera	Ezagutza-adierazlea.
A	<i>6.5. Txertoen ekintza-mekanismoa azaltzea. 6.6 Immunologiaren zenbait aplikazio aztertzea. 5.3. Mikroorganismoek sortutako infekzio eta gaixotasun ohikoenak identifikatzea, infekzio-bideak, infekzioak prebenitzeko modua eta haien aurre egiteko modua adierazita (antibiotikoak, txertoak) 6.1. Antigenoa eta antigorputza definitzea. 6.2. Izaki bizidunek antigeno baten aurrean garatzen dituzten defentsa-mekanismoak aztertzea.</i>
B	<i>2.7 Mitosiaren eta meiosiaren arteko aldeak eta haien esanahi biologikoa aztertzea. 2.8 Zelularen zikloa eskematikoki irudikatzea.</i>
1	<i>5.1. Mikroorganismoek agente onuragarri eta kaltegarri gisa duten funtzioa azaltzea. 5.5. Birusen egitura interpretatzea.</i>
2	<i>3.2. Biriketako gas-trukea azaltzea.</i>
3	<i>4.1. Kontzeptu hauek azaltzea: genea, aleloa, genotipoa eta fenotipoa. 2.3. Katabolismoaren eta anabolismo zelularren helburua labur deskribatzea. 1.1. Materia biziaren osaera azaltzea, eta bioelementuak eta biomolekulak identifikatzea.</i>